

Gonzalo Chillida,
*Segovia*, 1953. (xehetasuna / detalle) Margoa / Pintura
© Gonzalo Chillida, VEGAP, Donostia / San Sebastián, 2024

## BISITA GIDATUAK

Komisarioaren bisitak, Peio Aguirre:
Apirilak 18, 18:00 CAS
Maiatzak 2, 18:00 EUS
Dohainik, web bidezko erreserbarekin.

Bisita programatuak:
Maiatzak 6, 30. 17:00, CAS; 18:00, EUS
Ekainak 13, 27. 17:00, CAS; 18:00, EUS
Museoko sarrerarekin.
Lekua aurrez gorde behar da webgunearen bitartez.
Data honetatik aurrera, kontsultatu webgunea.

Taldeentzako eta eskolentzako eskaintzari buruzko informaziorako museoarekin harremanetan jarri.

## VISITAS GUIADAS

Visitas del comisario, Peio Aguirre:
18 de abril, 18:00 CAS
2 de mayo, 18:00 EUS

Gratuitas con reserva previa en la web:
6, 30 de mayo. 17:00, CAS; 18:00, EUS
13, 27 de junio. 17:00, CAS; 18:00, EUS
Con la entrada al museo.
Reserva de plaza previa en la web del museo.
A partir de esta fecha, consultar la web.

Para oferta escolar y grupos contactar con el museo.

**ORDUTEGIA / HORARIO**

Asteartetik igandera:
10:00 - 19:00 / 20:00
**(azarotik martxora, 19:00 eta apiriletik urrira, 20:00)**
Astelehenetan itxita, jaiegunetan zabalik.

De martes a domingo:
10:00 - 19:00 / 20:00
**(de noviembre a marzo, 19:00 y de abril a octubre, 20:00)**
Lunes cerrado, festivos abierto.

**PREZIOAK / TARIFAS**

Sarrera Orokorra / Entrada general 10€
Murriztua / Reducida 4€
Asteartetan **dohainik** / Los martes **acceso gratuito**

**SAN TELMO MUSEOA**
Zuloaga pza. 1
20003 Donostia / San Sebastián
T. 943 481 580
*www.santelmomuseoa.eus*
*santelmo@donostia.eus*
*@santelmomuseoa*

Antolatzailea / Organiza:

Erakunde babesleak / Instituciones socias:

Marta Cárdenas, *Autorretrato truncado / Autorretratu etena*, 1975. Margoa / Pintura
© Marta Cárdenas, VEGAP, Donostia / San Sebastián, 2024



# 100 URTE Modernoa *eta / edo* garaikidea

# 100 AÑOS Lo moderno *y / o* lo contemporáneo

Erakusketa
2024ko apirilaren 13tik aurrera

SAN TELMO MUSEOA

Exposición
Desde el 13 de abril de 2024

Ehun urte, mende bat, denbora tarte nahikoa luzea da ziklo eta garai aldaketez ohartzeko. Askotan, garai historiko baten eta bestearen artean, bat-batean hamar urte nahikoa izan daitezke mende oso bateko kontraesanak ezagutzera emateko. Arte modernoaren eta postmodernoaren hamarkaden araberako banaketa XX. mendea amaitzearekin gelditu zela zirudien eta orain "garaikidean" bizi garela. Gaur egungo arte "modernoaren" eta "garaikidearen" arteko bereizketa tradizionalak iragana eta oraina generikoki bereizteko balio du oraindik. Baina modernoa eta garaikidea, batez ere, denbora kategoriak dira: "modernoak" "orain" esan nahi du, edo iraganarekiko eta tradizioarekiko haustura. Nolanahi ere, aro historiko bat bezala ere ulertzen dugu modernoa, Modernitatea, jada iragana dena.

1924 aldera, Europako abangoardia artistikoen albisteak bazter guztietara zabaldu ziren. Aldi berean, "euskal artea" definitzeko oinarriak lantzen hasi ziren. Ehun urte geroago, termino hori behin-behineko adierazpen bat baino ez da, eta tokikoa nazioartekoarekin, partikularra unibertsalarekin birlotzeko balio du. Erakusketa honek, San Telmo Museoaren funtsetan oinarrituta, beste erakundeetako piezekin –Gipuzkoako Foru Aldundia, Kutxa Fundazioa...–, ibilbide ez lineala ezartzen du gure lurralde hurbilenean egindako artearen iraganetik orainaldira arte: Donostiatik Gipuzkoara, eta hortik Euskal Herri osora. Erakusketan, obrei hitz egiten utzi nahi zaie, haien artean loturak eta elkarketak egiten dituen tapiz trinko batean konektatzen.

XX. mendeko mugimendu berriei heldu zieten artistek ematen diote hasiera erakusketari. Euskal pinturaren ordezkariez ari gara, kostunbrismoari eta euskal eredu eta erromeriei lotuta egonik ere alderdi piktoriko berritzaileak sartu zituzten artistez (Urrutia, Arteta, Tellaetxe, Zumalabe): hogeiko eta hogeita hamarreko hamarkadetan dandismoaren eta bizitza sozialaren aldeko gustuan adierazten da Modernismoa (hala nola Lagarde artista, edo Gezala bilbotarrak Asun Asartari egindako erretratua, 1920koa). Ondoren, Oteiza, Lekuona, Zelaia edo Narkis Balenciagaren obran gauzatzen diren aurreneko abangoardien adibide batzuk izango ditugu.

Berrogei eta berrogeita hamarreko hamarkadetako hibernazio aldi baten ostean, Gaur Taldeak (Oteiza, Chillida, Basterretxea, Sistiaga, Mendiburu, Zumeta, Ruiz Balerdi, Arias) eta garai hartako beste artista erabakigarri batzuek (Ibarrola, Jiménez) irudikatutako artearen eskutik etorri zen euskal kulturaren pizkundea.

Pinturak garrantzi berezia du erakusketa honetan, neokubismoaren ordezkariak (Gonzalo Chillida, Gracenea) ditu, eta, geroago, hirurogeita hamarreko hamarkadan, kutsu onirikoko figurazio berriaren eta espresionismoaren ordezkariekin (Herrero, Ameztoy, Nagel, Goenaga), baita Cárdenas eta Valverde bezalako artisten ibilbide subjektiboek eta korrontearen kontrakoek markatutako ikuspegi propioa duten ordezkariekin ere.

Laurogeiko hamarkadako Euskal Eskultura Berria delakoa (Elena Mendizabal, Badiola, Bados, Moraza, Irazu) eta, jarraian, Miren Arenzana bezalako artistak, erabateko berrikuntza dira XX. mendearen amaierako eskultura hizkuntzetan.

Erakusketa honen berrikuntzetako bat da San Telmo Museoak erositako euskal arte berriena ikusgai jartzea. Barne sartzen dira beren ibilbidea laurogeita hamarreko hamarkadan hasita gaur arte ari direnak, besteak beste, Itziar Okariz, Asier Mendizabal, Isabel Herguera, José Ramón Amondarain, Ibon Aranberri eta/edo June Crespo. San Telmo Museoaren bildumaren aurkezpen honek berretsi egiten du museoak iraganaren memoriarekin eta, era berean, orainaren garaikidetasunarekin duen konpromisoa.

Peio Aguirre



Nicolás de Lekuona, *Izenbururik gabe / Sin título*, 1935. Collagea paperean / Collage sobre papel

Cien años, un siglo, es un lapso de tiempo suficientemente amplio como para comprobar los cambios de ciclo y época. A menudo, entre un periodo histórico y otro, diez años de repente pueden bastar para revelar las contradicciones de todo un siglo. La división por décadas del arte moderno y posmoderno pareció detenerse con el siglo XX: ahora parece que simplemente vivimos en "lo contemporáneo". La distinción tradicional entre arte "moderno" y "contemporáneo" sirve todavía para separar genéricamente entre pasado y presente. Pero lo moderno y lo contemporáneo son, sobre todo, categorías temporales: "moderno" significa "ahora", o ruptura con el pasado y con la tradición. Sin embargo, por moderno también entendemos un periodo histórico, la Modernidad, que ya es pasado.

Hacia 1924 las noticias de las vanguardias artísticas europeas se extendieron por todos los rincones. Al mismo tiempo, comenzaban a labrarse las bases para una definición de un "arte vasco". Cien años más tarde este término no es sino una expresión provisional que sirve para religar lo local con lo internacional, lo particular con lo universal. Esta exposición a partir de los fondos de San Telmo Museoa, junto con piezas de otras instituciones –Diputación Foral de Gipuzkoa, Kutxa Fundazioa...– establece un recorrido no lineal desde el pasado hasta el presente del arte realizado en nuestro territorio más próximo: desde la ciudad de San Sebastián a Gipuzkoa, y de ahí al conjunto del País Vasco. Se pretende aquí dejar hablar a las obras, conectarse entre ellas en un tupido tapiz de vínculos y asociaciones.

La exposición comienza con aquellos artistas que empiezan a abrirse a las nuevas corrientes del siglo XX. Nos referimos a los representantes de la pintura vasca quienes, aún vinculados al costumbrismo y los tipos vascos y romerías, introducen aspectos pictóricos novedosos (Urrutia, Arteta, Tellaeche, Zumalabe); en los veinte y treinta la Modernidad se expresa en un gusto por el dandismo y la vida social (artistas como Lagarde o el fabuloso retrato de Asun Asarta del bilbaíno Guezala, de 1920). A continuación tenemos algunos ejemplos de las primeras vanguardias auténticamente genuinas ejemplificadas en la obra de Oteiza, Lekuona, Celaya o Narkis Balenciaga.

Después de un periodo de hibernación en los años cuarenta y cincuenta, el renacimiento de la cultura vasca viene de la mano del arte representado por el Grupo Gaur (Oteiza, Chillida, Basterretxea, Sistiaga, Mendiburu, Zumeta, Ruiz Balerdi, Arias) y otras figuras decisivas de aquel periodo como Ibarrola o Jiménez.

La pintura tiene especial relevancia en esta exposición, con representantes del neocubismo (Gonzalo Chillida, Gracenea) y, más tarde en la década de los setenta, con la nueva figuración de corte onírico y el expresionismo (Herrero, Ameztoy, Nagel, Goenaga), así como en las visiones subjetivas marcadas por las trayectorias singulares y a contracorriente de artistas como Cárdenas y Valverde.

La llamada Nueva Escultura Vasca de los años ochenta (Elena Mendizabal, Badiola, Bados, Moraza, Irazu) y, a continuación, artistas como Miren Arenzana, suponen toda una renovación en los lenguajes escultóricos de finales de siglo XX.

Una de las novedades de esta exposición consiste en visibilizar las adquisiciones que desde San Telmo Museoa han venido haciéndose del arte vasco más reciente. Esto incluye artistas que comienzan su carrera en los años noventa hasta la fecha, incluyendo los nombres, entre otros, de Itziar Okariz, Asier Mendizabal, Isabel Herguera, José Ramón Amondarain, Ibon Aranberri y/o June Crespo. Esta presentación de la colección de San Telmo Museoa reafirma el compromiso de este museo con la memoria del pasado y, también, con la contemporaneidad del presente.

Peio Aguirre